

## Harremanak

*Euskaldunon Egunkaria*, 1992-08-04: 2.

Egun hauetan goi mailako *harremanak* daude modan. Eskola publikoa dela, alderdien arteko hurbiltze bilaketak direla, edo goi-goi mailako nahi eta ezin lortu diren elkarriketak, eta poto handi eta ikaragarria bizi dugu. Ikaskizun hauen inguruan kezka bat sortzen zait: harreman hauek egitazko bilaketak ala politikakeriak eragindako jolasak diren. Bilaketak egitazkoak direla erakusteko seinale, auzilariek gai edo auzi beraz erakusten duten borondatea da. Esate baterako, gaia euskararen etorkizuna bada, alderdiek hizkuntzaganako arretarik erakutsi duten; Euskal Herria bada jokoan dagoena, ea herri hau aske izateko inoiz borrokatu diren. Bestea, gaurko auziaren aurrean bakoitzaren egia erakusteko seinale, sinbolo, berak edo antzekoak erabiltzen ahalegintzen diren, hau gabe zaila baita elkar ulertzea; elkar ulertu gabe aurki dezaketen akordioak ez baitu iraungo, eta irauten ez duen ezerk ez du gure herrian pakerik ekarriko. Komunikazio honen bitartez behar den bata bestearenganako ezagutzaz gainera, beste zerbait erakutsi behar da; irabaztearen truke zerbait galtzeko behar den izpiritua. *Pakea* bera ere irabaz edo galgarri dela kontuan hartuz! Hau ez baitu bakoitza berean egoteak sortzen duen "enpate" edo berdinketa batek ekarriko; akordioa eta pakea ekarriko duen egoerak, elkar-emate truke eman daitekeen errealitate berria behar du sortu, eta hau ezin da "enpatia" gabe, afektiboki partaide oso izan gabe egin. Hau da neuk ikusten ez dudana, amore ematea; afektiboki zerbait ezagutu eta harremanerako behar den jarrera. Susmoa baitut afektiboki batak besteari zerbait eman gabe ez dela gure herrian iraungo duen ezer etorriko.